Goiko Errota

Elkargune Ekologikoa

Proiektu Proposamena

2021eko Iraila

ESKATZAILEA

Maïa Permaculture sistema integralen diseinu-pentsamendua erabiliz, bizitza ekologiko eta jasangarri bateranzko bidean gidatzea helburua duen enpresa da. Horretarako, diseinu, aholku, hezkuntza eta baliabide sorkuntza zerbitzuak proposatzen ditu bai euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez.

« Ekologia, ingurumenaren kontserbazioa, hezkuntza eta Zabor Zero mugimenduarekiko grina duen biologo eta permakultura diseinatzaile Hondarribiarra naiz. Bretainian, Bordelen, Eskozian, Kanadan eta Japonian 18 urte bizi ondoren, oso pozgarri zait nire sustraietara itzultzea, eta gizarte erresiliente eta birsortzailea garatzen laguntzea hemen, nere herrian. »

Mayi Lekuona, Maïa Permaculture-en sortzailea

www.maiapermaculture.com
mlekuona@maiapermaculture.com
www.linkedin.com/in/mayilekuona

GARAPEN JASANGARRIRAKO 2030 AGENDA

Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren alorretan giza garapena bultzatzea helburuak duen ekintza-plan unibertsal, integral eta eraldatzailea da. "Inor atzera ez uztea" lemapean, ingurumenan, oparotasunan eta bakean zentratzen da.

Trantsizio ekologikoa eredu ekonomiko eta sozial berriranzko bilakaera da, garapen iraunkorreko eredua. Gure kontsumitzeko, ekoizteko, lan egiteko eta elkarrekin bizitzeko moduak berritzen dituen eta ingurumen-erronka handiei, hala nola klima-aldaketa, baliabide-eskasia, biodibertsitatearen galera azkarra eta ingurumen-osasunerako arriskuen areagotzea, aurre egiten duen eredua.

PERMAKULTURA

Permakultura, irtenbide birzortzaileak bilatzen dituen **sistema naturaletan oinarritutako diseinu-metodologia** bat da. Bere helburu nagusia, gure inpaktu ekologikoa murriztea, edo are gehiago, gure inpaktu ekologiko negatiboa positibo bihurtzea da.

Hiru etika unibertsal, zenbait printzipio orokor, estrategia biorregionalak eta tokiko tekniken erabileran oinarritzen da.

"Benetako sistema jasangarria sortzeak etika eta balio indartsuen jarraitzea eskatzen du, horrela bakarrik lortzen bait da permakulturan benetan oinarritzen den bizimodua."

GOIKO ERROTA

"Goiko Errota - Elkargune Ekologikoaren proiektuak Goiko Errota berpizteko asmoa dauka."

Jaizkibel mendiaren hegoaldeko mazela batean, Jaitzubia eta Arkoll auzoen arteko gunean, zabaltzen dira Goiko Errota izeneko etxaldearen lurrak. Lurra hauek 48.000m² hartzen dituzte eta XVIII. Mendeko arkitektura-molde tradizionalen arabera eraikitako etxe batean dago errota.

2007an, Goiko Errota Naturaren Interpretazio Zentro bihurtu zen, eta, 2009an, Capitán Tximista enpresak turismo aterpe, kantina eta naturarekin eta aire zabaleko kirolekin lotutako hainbat programa kudeatu zituen. Harrezkero, ez dira inolako jarduerarik antolatu ura eta zuhaizti oparoak osagarri nagusitzat dituen natura-ingurune honetan eta biztanleak kezkatuta daude inguru honen narriadurarekin.

MISIOA

Proiektu honek Hondarribiko eta, oro har, Bidasoako herritarrei iraunkortasunari buruzko egitura bat eskainiko die, non eta ingurumenarekin eta trantsizio ekologikoarekin zerikusia duen informazioa ikasi edo partekatu ahal izango duten. **Goiko Errota – Elkargune Ekologikoa** sortzeak, portaera ekologiko eta arduratsua lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta informazioa eskainiko dizkie herritarrei, tokiko ekintza eta pentsamendu globalaren ikuspegi holistikoaren, tailer ludikoen, ekitaldien, jardueren, hitzaldi-eztabaiden edo erakusketen bidez.

Goiko Errota – Elkargune Ekologikoa ikaskuntzari, jakin-minari, trukeei eta bizikidetzari eskainiko zaio eta, besteak beste, lorategi didaktikoa, baso jangarria, liburutegia edo urtean zehar erakusketak aurkeztuko dituen aretoa ere izango du. Bizimodu osasuntsuak, jasangarritasuna, autosufizientzia eta ingurumenaren eta gizartearen eta kulturaren birsorkuntza lantzeko jarduerak eta proiektuak sustatuko dira Goiko Errotan. Irakasleak, ikasleak, aisialdi zentroak, familiak, elkarteak, bizilagunak, edo turistak, aholkuak, laguntza eta hezkuntza tresnak aurkitu ahal izango dituzte Goiko Errotan.

"Goiko Errota komunitatearen eta komunitatearentzat leku inklusibo eta ahalduntzaile batean bihurtuko da."

HELBURUAK

Zertarako egin nahi dugu?

- Herritarrak sentsibilizatu eta ahaldundu beraien zuzeneko ingurunea zaintzen eta baliabide naturalak kontserbatzen duen aktore bihurtu daitezen
- Gure ingurunea ulertzeko hezkuntza-tresnak eskaini
- Ingurumenaren behaketarako, errespetatzerako eta birsortzerako laguntza eskaini
- Publiko guztiei zuzendutako sentsibilizazio ekintzak eta jarduerak eskaini
- Herritarren topagune eta baliabide zentroa izan (dokumentazioa, teknologia berriak, energia berriztagarriak, energia aurreztea, eta abar)

SMARTER Helburu Operatiboak

- Hondarribi Berde elkartea 2021eko udazkenean sortu
- Goiko Errota – Elkargune Ekologikoa 2022ko udaberrian inauguratu
- Lorategi didaktikoa, baso jangarria eta baratze komunitarioak 2022ko udaberrian elkar-sortzen hasi
- Aholkularitza zerbitzuekin eta tailer eta hitzaldien agendarekin 2022ko udaberrian hasi
- Lehenengo kurrikulum-jarduerak 2022ko udazkenean eskaintzen hasi
- 2023ko udazkenean kurrikulum-jardueren eskaintza handitu
- Udalekuak 2024ko udarako antolatu

ARDATZ NAGUSIAK

Goiko Errota – Elkargune Ekologikoak permakulturaren etikak jarraituz, garapen jasangarriaren hiru dimentsioetako zerbitzuak eskainiko ditu:

01 Ingurumena

- Goiko Errotako lurren kontserbazioa eta birsorkuntza
- Lorategi didaktikoa, baso jangarria eta baratze kooperatiboa
- Aholkularitza espezializatua, bai proiektu publiko eta pribatuentzat

02 Gizartea

- Sentsibilizazio tailerrak eta hitzaldiak
- Permakulturako Aurkezpen Ikastaroa eta Permakulturarako Diseinu Ziurtagiria
- Ikastetxeentzako hezkuntza programa
- Herritarren parte hartzea

03 Ekonomia

- Gizarte- eta toki-enpresen proiektuak diseinatzeko aholkularitza
- Tokiko enpresekin lankidetza
- Eusko monetaren truke-bulegoa

ARLOAK

Topagunea

- Errotaren Erakusketa Finkoa
- Aldi-bateko Erakusketak
- Lorategi Didaktikoa
- Baso Jangarria
- Baliabide Espezializatuen Aretoa

Herritarren parte hartzea

- “Hondarribi Berde” Elkartea
- Lorategi Didaktikoa
- Baso Jangarria
- Baratze Kooperatiboa



Diseinua eta aholkularitza

- Udaletxe, Enpresa, Elkarte, Eskola eta Partikularrentzako Permakulturan oinarritutako Diseinu Iraunkorrak

Gazteria

- *In situ* jarduerak eskola-taldeentzat
- Naturara irteerak
- Eskola baratzeak
- Ekoalfabetizazioa hezkuntza zentroetan

HELBURUAK ETA JARDUERAK

Herritarrak sensibilizatu eta ahaldundu beren zuzeneko ingurunea zaintzeko eta baliabide naturalak kontserbatzeko

01 ERAKUSGUNE BAT SORTU

1.1 Topagune & baliabide zentroa izan

Eraikina Birgaitu

- Eraikinaren garbiketa eta bulegoaren instalazioa
- Baliabide espezializatutako aretoaren sorkuntza
- Erakusketa iraunkorraren sorkuntza
- Funtzio anitzeko aretoaren prestaketa

1.2 Basoa zaindu & leheneratu

Ingurumenaren Zaintza

- Lurraren apainketa
- Animalien integrazioa (ahuntzak, ahateak)
- Perretxikoen laborantza
- Proiektuko beste eremu batzuetan bildutako zuraren erabilera
- Espeziak zerrendatzea

1.3 Parte hartzeko espazioak sortu

Lorategi Didaktikoa

- Landare jangarri, usaintsu, tindagaien eta abarren lorategia
- Denboraldiaren luzapena
- Praktika permakulturalak erabiltzea
- Uraren erabilera adimenduna
- Konpostajea
- Materialak birziklatzea

Baso Jangarria

- Gremioak sortzea
- Auto-uzta
- Auzolanak

Baratze Kooperatiboa

- Elkarteko kideentzako espazioa sortzea

Beste Espazio Kooperatiboak

- Elkarteko kideen beharren eta nahien arabera (adibidez, tailerra kooperatiboa, hazi liburutegia, artisau-garagardoa egiteko aretoa, kantina kooperatiboa...)



02 AHOLKULARITZA ETA DISEINU ZERBITZUAK ESKAINI

2.1 Diseinatu & Aholkatu

Permakulturan oinarritutako diseinu iraunkorrak

- Udaletxeak
- Pertsonak
- Ikastetxeak
- Elkarteak
- Enpresak

03 HEZKUNTZA PROGRAMAK ESKAINI

3.1 Jardueren agenda eskaini

Hitzaldiak

- Solasaldiak, hitzaldiak eta eztabaidak

Tailerrak eta Ikastaroak

- Permakulturako Aurkezpen Ikastaroa
- Permakulturarako Diseinu Ziurtagiria
- Lotutako tailerrak (tindagai naturalak, sukaldaritza begetarianoa, zeramika, saskigintza, eta abar)

3.2 Ekoalfaetizazioa ikastetxeetan

Ikastetxeetan

- Eskola baratzeak
- Sentsibilizazio hitzaldiak
- Tailerrak

In situ

- Naturara irteerak
- Eskola bisitak
- Udalekuak

HELBURUAK ETA EMAITZA NAGUSIAK (OKR)

HELBURUAK	EMAITZA NAGUSIAK 2021-2024	EGIAZTAPEN BITARTEKOAK
▸ Erakusgune bat sortu	○ 2021eko udazkenerako aurre-diseinua egina ○ 2021eko udazkenean Hondarribi Berde elkartea sortua ○ Parte-hartze jarduerak geroz eta gehiago antolatzen ditugu ○ Elkartean gutxienez 20 pertsona ditugu ○ Prozesu osoari buruzko bideo dokumental bat dugu ○ Kanpoko ekosistema sistema dibertsoa eta ugarian bihurtu da	○ Elkartearen erregistroa ○ Bileren aktak ○ Jardueren agenda ○ Kideen zerrenda ○ Bideoa on line ○ Argazkiak, aurretik eta ondoren, eta espezieen zerrenda
▸ Aholkularitza eta diseinu-zerbitzuak eskaini	○ 2021eko udan Maïa Permaculture sortzea ○ Urtean 6 bezero lortzea	○ Bezeroak izatea ○ Proiektuen dokumentazioa ○ Esperientzien ebaluazioa
▸ Hezkuntza-programa eskaini	○ Baliabideen webgunea eskaintzen dugu (fitxa teknikoak, erlazionatutako gaiak, jarduera kurrikularrak eta elkarrizketekin) ○ Langile kualifikatuak ditugu ○ Hilean gutxienez hitzaldi edo tailer bat eskaintzen da ○ Ikastaro / tailer bakoitzean gutxienez 15 lagunek ematen dute izena ○ Partaidetza handitzen doa denborarekin ○ Gutxienez 15 ikastetxeren bisita izan ditugu ○ Gutxienez 15 ikastetxetara joan gara ○ Gutxienez 3 eskola-baratze sortu ditugu ○ 2024ko udako udalekuak antolatu ditugu	○ Webgunea online ○ Trafikoari buruzko estatistikak ○ Jarduerak burutzeko adinako ezagutzak dituzten langile autonomoak eta adituak ○ Ikastaroen programazioa (edukiak, metodologiak) ○ Jardueren programazioa ○ Jarduera bakoitzaren ebaluazioa ○ Izen-emateen zerrenda ○ Bertaratze-zerrenda ○ Proiektuen dokumentazioa

ORGANIGRAMA

Hondarribiko Udala

- Babesle nagusia proiektuaren hasieran
- Proiektuaren sustapena

Goiko Errota
Elkargune Ekologikoa

MAIA PERMACULTURE

- Goiko Errotaren zuzendaritza eta kudeaketa

- INGURUMENAREN ZAINTZA
- ERAKUSKETA FINKOA ETA ALDI-BATEKOA
- IKASTAROAK ETA TAILERRAK
- BALIABIDE ESPEZIALIZATUAK
- DISEINUA ETA AHOLKULARITZA
- GAZTERIA
- ARETOA ALOKATZEA
- "HONDARRIBI BERDE" ELKARTEAREN SORRERA ETA AHOLKULARITZA

HONDARRIBI BERDE

- Espazioaren elkar-sorkuntza

- LORATEGI DIDAKTIKOA
- BASO JANGARRIA
- BARATZE KOOPERATIBOAK
- ESTE ESPAZIO KOOPERATIBOAK ELKARTEKO KIDEEN BEHARREN ETA NAHIEN ARABERA (adibidez, tailerra kooperatiboa, hazi liburutegia, artisau-garagardoa egiteko aretoa, kantina kooperatiboa...)

"Hondarribi Berde" elkartea sortuz gero herritarrek parte hartu ahal izango dute erakusketa-gunea eta gune komunitarioa sortzen eta garatzen. Aldi berean, proiektuak aurrera egiteko diru-laguntza askoren ateak irekiko dizkigu.

QUARTA-VISTA NEGOZIO EREDUA

Ezagutza

Jakinduria Galtzea

▸Praktika tradizionaletan adituen beharra (saskigintza, zeramika, elikagaiak haztea eta kontserbatzea, etab.)

Jakinduriaren Sorrera

▸Tailerrak, ikastaroak eta hitzaldiak
▸Eskola-bisitak eta eko-alfabetatzea ikastetxeetan
▸Dokumentazio eta bideo didaktikoak
▸Belaunaldi anitzeko jarduerak

Gizartea

Kostu eta Arrisku Sozialak

▸ Pertsona eta talde gehiago bisitatzea
▸Zarata handitzea

Funtsezko Bazkideak

▸ Maïa Permaculture
▸Hondarribiko Udala
▸Permakultura Iberiar Elkartea
▸Aldatsa Baratzak, Botika Agroaldea Labore Txingudi
▸Hiritik At
▸Endanea eta Pépinière Indartia
▸Kontaktu pertsonalak

Erantzukizunak

▸ Ingurumenarekin, elikadura-burujabetzarekin, ekonomia zirkularrarekin eta trantsizio ekologikoarekin zerikusia duten gaietan herritarrak gidatzea eta laguntzea.
▸Biodibertsitatearen babesa
▸Tokiko ondarearen babesa

Bezeroak

▸ Inguruko udalak
▸Eskolak
▸Ingurumenarekin, beren aztarna ekologikoa jeitsi eta beren erresilientzia pertsonala handitu nahi duten pertsonak eta enpresak

Abantaila Sozialak

▸ Enplegua sortzea
▸5eko familia baten ostatua
▸Tokiko ondarea zaharberritzea
▸Kontzientzia ekologikoa eta erresilientzia handitzea
▸Teknika tradizionalen kontserbazioa
▸Komunitatea sortzea
▸Espazio irekia eta inklusiboa

Funtsezko Jarduerak

▸Permakulturako diseinu-estudioa
▸Permakulturako aholkularitza
▸Tailerrak eta ikastaroak
▸Loratégi didaktiko, baso jangarria eta eta ortu kooperatiboarean elkartea
▸Eskola-taldeen bisitak
▸Eskola baratzeak
▸Lekua alokatzea
▸Eusko monetaren truke-bulegoa

Balio-Proposamena

Elkarguneak portaera ekologiko eta arduratsua lortzeko beharrezko tresnak eta informazioa eskainiko dizkie herritarrei, tokiko ekintzaren eta pentsamendu globalaren ikuspegi holistikoaren, tailer ludikoen, ekitaldien, jardueren, hitzaldi-eztabaiden edo erakusketen bidez.

Elkargunea ikaskuntzari, jakin-minari, elkar-trukeari eta bizikidetzari ekingo zaio eta bizimodu osasungarriekin, jasangarritasunarekin, autosufizientziarekin eta ingurumeneko eta birsorkuntza soziokulturalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak sustatuko dira.

Bezeroekiko Harremana

▸Zuzeneko harremana (zerbitzu pertsonalizatuak eta presentzialak)
▸Elkartearen elkar-sorkuntza
▸Doako zerbitzua: elkargunearen bertan dauden baliabideak

Ekologia

Kostu eta Arrisku Ekologikoak

▸Espazio naturalaren asaldura, pertsona eta taldeen bisitak handitu direlako

Funtsezko Baliabideak

▸Espazioa: 48 000 m², flora eta fauna aniztasun handiko paisaia
▸Eraikina: erabat berritua duela 20 urte baino gutxiago eta kantina eta aterpetxerako lekua
▸Ura eskuragarri
▸Ezagutza teknikoa permakultura, biologia, ekologia, proiektuen kudeaketa eta hezkuntzan
▸Hizkuntzak

Produktua bizi-amaierara iristearen jasangarritasuna

Kasu honetan produktua ezagutza, trebetasunak eta bizimodu nahasketa bat da. Produktua ez da bere bizitzaren amaierara iristen, transmititu egiten da.

Produktua erabiltzearen jasangarritasuna

Lurra Zaintzeko, **Pertsonak Zaintzeko** eta **Soberakinak Banatzeko** permakulturaren hiru etikei jarraituz, ekintza guztiak ahalik eta ingurumen-inpaktu txikiena eragiteko pentsatuta egongo dira.

Kanalak

▸Web orria
▸Sare sozialak
▸Talde eta txat lokalak
▸Feriak eta ekitaldiak

Abantaila Ekologikoak

Zuzenak:
▸Goiko Errotako lurra leheneratzea
▸Biodibertsitatea handitzea, ingurumena kudeatzeko tekniken bidez, eta erakustokia eta baso jangarria sortuz

Zeharkakoak:
▸Hezkuntzaren eta akonpainamenduaren bidez, Bidasoan eta inguruetan proiektu jasangarriak areagotzea

Finantza

Finantza Kostuak eta Arriskuak

▸1-2 lagunentzako soldatak (hasiera batean)
▸Nekazaritzako materiala eta eraikina hornitzeko materiala erostea
▸Materialaren mantentze-lanak
▸Landareak erostea
▸Fakturak: ura, argia, telefonia...

Diru-Sarreren Iturriak

▸Ikastetxeetako bisitengatiko ordainketak
▸Diseinu eta ikastaroen ordainketak
▸Udal laguntzak
▸NBEren SDGak betetzearekin lotutako diru-laguntzak
▸Elkarteko bazkide kuotak
▸Espazioen alokairua

BALIO-PROPOSAMENA (Hondarribiko Udala)



Proiektu honek Hondarribiko Udalari tokiko ondare errota batean proiektu berritzaile bat sortzeko aukera eskainiko dio. Goiko Errota - Elkargune Ekologikoa iraunkortasunari eskainita egongo da, ingurumenarekin eta trantsizio ekologikoarekin lotutako informazioa eta gidaritza zuzenean eskaintzeko helburua duen espazioa. **Tresna ezin hobea izango da NBEren Garapen Iraunkorrerako Helburuak eta 2030 Agenda herrian ezartzen laguntzeko, eta, aldi berean, jarraitzeko eredua izango da gainontzeko herrientzat.**

BALIO-PROPOSAMENA (Herritarrak)



Bizimodu osasuntsuak, jasangarritasuna, autosufizientzia eta ingurumenaren eta gizartearen eta kulturaren birsorkuntza lantzeko jarduerak eta proiektuak sustatuko dira Goiko Errotan. **Herritarrek kanpoko espazioaren sorkuntzan parte hartzeko aukera izango dute eta, bertan, aholkuak, proiektuen laguntza eta tresnak aurkituko dituzte.** Elkargunea ikaskuntzari, jakin-minari, trukeei eta bizikidetzari eskainiko zaio eta, besteak beste, lorategi didaktikoa, baso jangarria, liburutegia edo urtean zehar erakusketak aurkeztuko dituen aretoa ere izango du.

BALIO-PROPOSAMENA (Ikastetxeak)



Ikastetxeek aliatu berri garrantzitsu bat izango dute bizimodu osasuntsuekin, ekologiarekin, jasangarritasunarekin eta birsorkuntza sozio-kulturalarekin lotutako jarduerak eta proiektuak antolatzeko orduan. Elkarguneak lorategi pedagogikoaren bisita dinamikoak eta interaktiboak, natur irteerak, eskola baratzeak sortzeko aholkuak eta hezkuntza baliabide ugari eskainiko ditu.

IMPLEMENTAZIO EGUTEGIA



FINANTZAKETA

AUTO-FINANTZAKETA

- Diseinuak eta Aholkularitza
- Irteerak Naturara
- Ekoalfabetizazio tailerrak ikastetxeetan
- Ikastetxeko bisitak
- Ikastaroak eta Tailerrak
- Elkarteko bazkide kuotak
- Espazioen alokairua

KANPO-FINANTZAKETA

Udal Funtsak

- Goiko Errotari dagoeneko adostutako aurrekontua
- Ekarpen gehigarria, proiektuan duen inplikazioaren arabera
- Euskara sustatzeko ekintzak antolatzen dituzten elkarte edo taldeentzat diru-laguntzak
- Establezimenduetako kanpo errotulazioa euskaraz jartzen dutenentzat diru-laguntzak
- Web orria euskaraz jartzen duten elkarte, enpresa eta abarrentzat diru-laguntzak
- Gazteria Sailaren dirulaguntzak
- Kultura Sailaren diru-laguntzak

Foru Funtsak

- Gobernuz kanpoko erakundeei proposatutako dirulaguntzak ingurumeneko boluntario jardueretarako
- Klima aldaketa - Toki entitateentzako laguntzak
- Ekonomia Zirkularra - Toki entitateentzako laguntzak
- Iraunkortasunerako hezkuntza - Toki entitateentzako laguntza
- Ondare naturala - Toki entitateentzako laguntzak
- IHOBE diru-laguntzak

Estatuaren Funtsak

- EmpleaVerde programa. Proiektuak egiteko diru-laguntzak.
- Gizarte intereseko ingurumen laguntzak
- Europako Batzordeak "Erasmus +" Programako Gazteria kapituluan finantzatutako jarduerak burutzeko laguntzak
- "Ingurumen Hezkuntzako Zentroak" programa nazionalean parte hartzeko diru-laguntzak

Europako Funtsak

- Ingurumen eta Klima Ekintzako GKEentzako LIFE Programa
- Horizon 2020 Gizartearen Erronka Programa 'Klima ekintza, ingurumena, baliabideen eraginkortasuna eta lehengaiak'
- ERASMUS + programa

Funts Pribatuak

- Biodibertsitate Fundazioaren laguntzak klima aldaketara egokitzeko proiektuak burutzeko
- Kutxa Fundazioaren laguntzak
- Crowdfunding

MAÏA PERMACULTURE

2021eko Iraila

www.maiapermaculture.com

Goiko Errotako argazkiak: Eladio Aires